

HASIERA ORDUA: 19:05

BUKAERA ORDUA: 20:55

PARTE HARTZAILEAK:

20 pertsona (6 emakume, 14 gizon)

ORDEZKARI POLITIKOAK:

Natxo Urkixo (EHBILDU)

Ametz Meatza (EHBILDU)

Jon Ander Altube (EHBILDU)

Maidier Basterra Ibarretxe (EAJ-PNV)

TEKNIKARIAK

Almudena Fernandez (Arkitektoa)

Laura Castresana (Arkitekto teknikoa)

Joseba Solaun (Obren arduraduna)

Publikoaren artean

-Iñigo Martínez Cerrillo (EH BILDU)

-Isabel Bóveda Urioste (EH BILDU)

Herritarra: Batzalarri kalean bizi da eta etxea Abastos plaza ikusten du etxearen alde batetik. Azaldu duenez, etxetik "lotsaren horma" ikusten dela, horma biren zati bana eraitsi direla eta Iberdrolaren etxola han geratu dela. Abuztuko jaietako errautsak han daude oraindik. Batzalarri aurreko kalezuloari izugarritzako kiratsa dario, jendeak komun gisa erabiltzen duelako. Gainera, Abastos plaza garbitzen da, baina ez kalezuloa.

Halaber, adierazi du jaietan bazkariak egiten direla bere etxearen azpian eta egun batzuetan ezin duela ireki.

Jonan: esan du salbuespena dela jaietako azken astuburua Abastos plaza bazkariak prestatzeko erabiltzea, eta apur bat malgu izan beharra dagoela. Argi dago espazioa erabiltzen denean, garbi uzti beharra dagoela. Eremu narriatua dela erantsi du, eta badirudi horrelako eremuek gizabiderik gabeko jarrerak erakartzen dituztela. Gaingitu beharreko ikasgaia da Abastos plazarekin zer egin pentsatzea. Garai bateko komunak eraitsi ziren espazioa libratzeko eta eremuan esku hartzen hasteko. Halaber, azaldu du Eusko Jaurlaritzak irisgarritasuna sustatzeko urtero ematen dituen diru-laguntzen deialdira proiektu bat aurkeztu dela. Erreferentzia gisa jarri du Arrañoiko adibidea; une honetan, bigarren igogailua egiten ari dira Aceros etxeen

parean diru-laguntzen programaren kontura. Aurkeztu den proiektua eremua osoki eraberritzeko da.

Herritarra: Batzalarriren bizi da eta kutsadura akustikoaz hitz egin nahi du. Gabonetan oso bolumen altuan jartzen dira erdigunean gabon kantak, bolumena jaitea iradoki du. Zamalanetarako eremuak arautzeko proposamenean ez da Sorozelai aipatu, eta oso eremu kaltetua da kamioien sartu-irtenak mugatu zirenetik. Azaldu du orgen joan-etorri handia dagoela. Iradoki du gurpilak gomazkoak izatea nahitaezkozat jotzea.

Jonan: erantzun du gabon kanten kontuak eztabaida sortzen duela, denetariko iritziak daudelako. Kalea girotzea da kontua. Agian, ordutegiak eta bolumenak doitu litezke mundu guztia pozik egon dadin.

Amets: azaldu duenez, kamioiak Izoria kaletik sartzen ziren. Hori gontz batekin kontrolatzea proposatu zen, eta zonalde horretako saltokiek zamalanetarako bi eremu dituzte, bata Jose Arrue kalean eta bestea Zumalakarregi etorbidean. Gomazko gurpilen proposamena behin baino gehiagotan egin da, izan ere, bertako saltoki batek duela tartetxo bat aldatu zituen.

Herritarra: azaldu du Aldaikorrekan futbola-ateen atzean dauden hesi metalikoen zarata handia ateratzen dute eta solte daude. Ohartarazi du egunen batean zerbait gertatuko dela. Karpan 5 baloi geratu dira ez atzera ez aurrera eta ez dira berreskuratzen. Halaber, esan du bere iritziak karpa zuria kendu beharko litzatekeela eta metalikoa jarri.

Amets: erantzun du hesiak ikustera joango direla, eta aurretik ere baten bat konpondu egin dela. Baloiei dagokienez, maiatzean batzuk hartu ziren, eta iragarki bat ipini zen jabeak horien bila joan zitezten. Azaldu du Udalak ez duela beti plataforma bat eskuragarri, eta orain plazan dagoela aprobetxatuz, handik igaroko dira baloiak hartzera.

Jonan: esan du ez daudela ados karpa zuria kentzeko behararekin, bere ustez azpiegitura gutxi dute hainbesteko erabilerarik. Bazegoen aukera karpa beste leku batzuetan ipintzeko, baina iritzi zitaion hobe zela espazio estali finko bat izatea Aldai plazan. Karpako prezioa 50.000€ ingurukoa izan zen eta amortizatu baino amortizatuagoa dagoela uste du. Etengabe erabiltzen da eta taldeek eta elkarteek oso ondo baloratzen dute.

Herritarra: esan du han finko izateak gastuak dakartzala. Hobe litzateke eszenatoki finko bat izatea.

Amets: erantzun du ez duela gasturik eragiten, karpa Udalarena da eta eszenatokiak herriko leku desberdinetan muntatzen eta desmuntatzen dira, karpan egiteak ez du aparteko gasturik ekartzen.

Jonan: erantzun du eszenatoki finkoa izatearena aukera bat dela eta azter litekeela.

Herritarra: Zubiko Kurajoko auzokideak, oro har, nahiko zaharrak dira eta orain ezin dute autoa atarira gerturatu erosketak uzteko. Lehenago goizetan auzoa irekitzean aprobetxatzen zen. Eskatu egin du auzoa ordu zehatz batzuetan irekitzeko berriz, deskargatu ahal izateko.

Jonan: azaldu du Udalaren apustua kalea oinezkoentzat izatearen aldekoa delapor que esa calle sea peatonal. Argi utzi nahi du kontua ez dela garai batean zamalanak zeudenik, kontua

da jendeak parkatzen zuela. Zamalanez ari garenean profesionalek gaiak kargatu eta deskargatzeko berariaz erreserbatu diren espazioez ari gara, euren lana egin ahal izateko erreserbatuta dituzten espazioez. Kalea ez da bukatu oraindik, eta aukerak aztertu beharko dira, baina Udalak serio hartzen du kaleak oinezkoentzat izatea. Bestalde, jarriko den zoladura oinezkoentzat pentsatua dago, ez ibilgailuentzat. Salbuespena litzateke pertsonak garraiatzeko hara joaten den ibilgailua; hari agintea eman zaio mutiloia igo eta jaisteko. Halaber, larrialdietarako ibilgailuek ere sarbidea izango dute.

Amets: esan du badakiela ezinegona dagoela, baina gogora ekarri du joan den abenduan, obrekin hasi aurretik, obren arloak bilera bat egin zuen eta ostalari, merkatari nahiz finka-administratzaileei hara joateko gonbidapena egin zitzaiela, egingo zena entzun zezaten.

Vecino: azaldu du Araba kalean biiz dela eta gero tona gehiagoko kamioiak igarotzen direla, eta oso goiz. Galdetu egin du handik igarotzeko abiadura kontrolatuko ote den zamalanez tartean. Esan du mutiloia tartetxo bat daramala funtzionatu gabe eta galdetu du posible ote den seinaleen bidez kalea oinezkoentzat dela adieraztea, auto batzuk nahastu eta hortik sartu direlako, irekita dagoela. Halaber, jakin nahi du zer ordutegi izango duen parkean txakurrentzat atonduko den eremuak.

Amets: erantzun du txakurren espazioa iluntzeko zortzietatik goizeko 11tara erabili ahalko dela. Azaldu duenez, Arabako kaleko mutiloia aldatuko da, seinaleak ere eta goizeko 6:30 edo 7:00etan irekiko da, gehienez ere, 11k arte. kamioiek orduko 20 kilometrotan joan ahalko dira gejienez, oinezkoentzako eremua delako.

Herritarra: erantsi du uste duela mutiloia apurtzeko arrazoia izan zela zabu gisa erabiltzen zela.

Amets: gehitu du parkean txakurrentzat atonduko den zonaldea ez dela itxirik egongo, baina plano bat egongo dela txakurrak zer eremutan izan ditzaketen solte. Beste bi eremuetako perimetroak bai, itxita egongo dira.

Herritarra: uste du araudia zaharkitua dagoela.

Herritarra: azaldu duenez, Musika Etxearen alboan isuna jarri diote txakurra solte izateagatik. Ez dago ados, une horretan bi pertsona baino ez zeudelako parkean. Gainera, tratu laidoak jaso omen zuen udaltzainaren partetik.

Jonan: azaldu du araudiaren arabera txakurrek ezin dute solte joan eta arauak betetzen ez direnean, isuna jaso daitekeela. Herritarrari esan dio haren ustez modu desegokian tratatu bazuten, errekurtsioa aurkez dezakeela.

Herritarra: galdetu du posible izango ote zen xedapen iragankor bat egitea Arraño isunik ez jartzeko parkea prest ez dagoen arte.

Jonan: azaldu duenez, hilerriaren ondoan egongo den txakurren eremua ia prest dagoela dagoeneko, Arraño geroago egingo dela. Parkean txakurrentzat ipiniko den espaziorako beste leku batzuetako eredu aplikatuko da.

Herritarra: Aldaiko erreka usainez galdetu du. Bere ustez, ura asfaltoaren azpitik iragazten da ura. Eta uste du pikotxarekin sartu beharra dagoela. Halaber, esan du liburutegitik Kasinora joateko zubia ez dela irisgarria.

Jonan: erantzun du zubiaren arazoa Ugarteko batzarrean ere planteatu dela eta hori ere begiratuko dela. Ados dago esatean erreka erabat artifizial bihurtu dela eta berriro naturalizatu behar dela. Lamuza parkea babesteko plan bereziaren lehenengo fasean, Aldaiko erreka saneatzea aurreikusita zegoen eta horixe egin da. Ondorengo fase batzuetan, berriro naturalizatu beharko da, baina horretarako baliabideak, diru-laguntzak eta abar beharko dira. Ziur aski, Foru Planera jo beharko dugu.

Laura: azaldu du zenbait esku-hartze bideratu direla han. Hasiera batean, antzeman zen saltoki batek saneamendu-urak euri-uren hodira isurtzen zituela, beraz, erreka. Haiekin hitz egin da, hobi septikora konekta zitezen. Bestalde, zubiaren aldean, ura nondik iragazten den ikusteko ekintzak bideratu dira. Parkeko saneamendua egin zenean, euri-urak eta hondakin-urak konektatu ziren (lehenengoak erreka isurtzen dira). Arazoa da hondakin-uretarako hobi batzuk euri-uretarakoekin konketatuta daudela, beraz, erreka isurtzen dutela eta oraindik ez dela argitu zeintzuk diren. Egunotan pare bat antzeman dira eta zuzendu egin da okerra. Motxotekale asfaltatu aurretik berrikusi egin da, eta aurretik ere gauza jakina zen Lamuzako zati batzuetatik hara isuri dela beti.

Herritarra: galdetu du webguneetara bidaltzen diren iradokizunak norbaitek irakurtzen dituen.

Jonan: erantzun du baietz.

Herritarra: galdetu du ea zergatik ez den ezer egiten orduan. Azaldu du Jose Matian zoladura berria dagoela eta oso ondo dagoela, baina dilatazio-junturetan landareak hazten ari direla eta inork ez diola horri jaramonik egiten. Halaber, esan du erreka eta Renfe hormako landareak espalora ateratzen direla. galdetu du ea lorezaintza zerbitzuak hori kontrolatu dezakeen. Kaleak garbitzen dituzten ibilgailuei dagokienez, gurpilak ordezteko proposatu du, orain dituztenak zoladuran markak uzten dituztelako.

Virgen del Carmen kaleko asfaltatzeaz galdetu du; duela urte asko iragarri zen, baina jendeak errekatik gertuen dagoen erreietik gidatzen du, beste erreietik ezin delako. Azkenik, esan du Zubiko Etxearen ondoan dagoen zubi berrian arratoiak daudela, eta erantsi du mezu bidez salatu egin duela. Han zarama asko dago edukontzietatik kanpo. Gainera, Soraluze kaleko egoera penagarria da.

Jonan: azaldu duenez, jende askok erabiltzen duela "Hobetu zure herria, mejora tu pueblo" zerbitzua. Bide horretatik jasotzen diren gorabehera-abisuak bizkor konpontzen dira, baina iradokizunak badira, erantzuten da aztertuko dela edo dagokion arlora bideratuko dela... Erantzuteak ez du esan nahi egingo denik edo arrazoia duzunik. Bada mezu elektronikoak arloetara helarazteaz eta jarraipena egiteaz arduratzen den pertsona bat.

Virgen del Carmen kaleko asfaltatzeaz, anbulatorioetik Zubikoraino egingo da, 2018an. Arratoiei dagokienez, hainbat abisu jaso dira (Apaloetatik eta beste toki batzuetatik). Leku guztietan daude arratoiak, baina kontrolatzen saiatzen gara. Abisu bat jasotzen denean, kontratatutako enpresari bidaltzen zaio zuzenean. Herrian egin diren obrek lekuz mugitzera behartu dituzte.

Ados dago Maestro Elorza kaleaz esan denarekin, berrienetakoa da, eta zikinena. Kale horretan zarama asko dago, eta hori izan daiteke arratoiak egotearen beste arrazoi bat.

Udalak badu lorezaintza zerbitzu bat eta bi azpikontrata, baina agian ez da leku guztietara iristen. Eskakizun maila geroz eta handiagoa da. Halaber, kontratatutako beste enpresa batek garbitze-zerbitzuak ematen ditu.

Herritarra: azaldu duenez, garbitzeko ibilgailuak matxuratu egiten dira eta herria likido hidraulikoz blaitzen dute. Udaltzainari eskatu zionean zoru labainkorra seinaleztatzeko, erantzun zion hark ez zuela seinaleztatu behar, partea eman baizik.

Jonan: pogora ekarri du duela gutxi arazo bat egon zela Zubiko Kurajon eta nahiko bizkor konpondu zela.

Herritarra: azaldu duenez, Jose Matian bi kasu egon direla, jasotze-lanetarako kamioiarena eta ekorgailuarena. Gainera, galdetu du ezin ote diren dilatazio-junturak zigilatu.

Jonan: esan du aztertu egingo dela.

Herritarra: azaldu duenez, lokala du Lamuzako 25. zenbakian, eta establezimenduaren aurrean 5 edukiontzi daude. Jendeak ez ditu errespetatzen zarama eta bestelako gaiak ateratzeko orduak... Eta han dauden hiru saltokiek kiratsa jasan behar dute, euliak, eta aurrean pilatuta duten zarama ikustea. Eskatu du edukiontziak aurrerantza eramatea bi aparkaleku, horrela inork jasan behar ez dezan, ez leudeketelako inongo saltoki edo establezimenduren ondoan.

Jonan: aztertuko da iradokizuna eta Kuadrillari planteatuko zaio.

Herritarra: galdetu du egungo beilatokirako sarbidea den zubian esku hartzea aurreikusi den, eta irin fabrikarako zerbait aurreikusi den. Halaber, iradokizun pare bat egin du: lehenik eta behin, zubiaren azpian bi banku baxu ipintzea, orain errekaaren eskuineko aldean daudelako, bietako bat eguratsaren pean. Bigarren iradokizuna da Ugarteko igarobide altxatuei buruzkoa. Aipatu du bizi den lekuan ere, gazteek etxabeak dituztela, eta arazoak eragiten dituztela, altzariak atera... Azkenik, galdetu du aztertu ote den zarama-bilketa penumatikoaren eraginkortasuna.

Jonan: erantzun du bilketa pneumatikoa, gaur egun, inplantatutako sistema bat dela, eta etorkizunean duen garapena ikusi beharko dela. Talde politiko gisa ez daude ados, ezdelako malgua eta bi sistemak elkarrekin konpatible egitera behartu dituelako. Villosako zubian esku hartzea aurreikusi da, URA agentziaren ardura da, Nerbioi ibaia bideratzeko proiektuaren barruan, Goiko plazatik Villosa zubiraino.

Irin fabrikari dagokionez, desjabetze-prozesuan DAGO. Duela asko dago antolamendutik kanpo eta une honetan ordaindu beharreko behin betiko prezioa eztabaidatzen ari dira. Bankuak zubien azpian ipintzea zentzuzko proposamena da eta jasota geratzen da.

Ametz: azaldu du Ugarte 3an igarobide altxatuak desagertu egingo direla asfaltatzean, eta kentzen ez direnak baxuago egingo direla. 39. zenbakiko etxabeari dagokionez, Udala jabeekin eta erabiltzaileekin lanean ari da eta lokala itxi egingo da. Udalak protokolo bat jarri du martxan auzokideekin bizikidetzan lantzeko etxabeak ixteko puntura iritsi aurretik. Gogora

ekarri du otsailean gaiari buruzko jardunaldiak egon zirela eta erabiltzaileak, jabeak nahiz auzokideak egon zirela gonbidatuta. jardunaldi horietan egindako ekarpen batzuk jaso ziren, eta orain bitartekaritza-lanak egingo dituen enpresa kontratatatu da.

Herritarra: galdetu du horren inguruko araudirik aurreikusi den.

Amets: zirriborro bat egin da, baina araudia bainoago, protokoloa da, erabilera-arau minimoak ezartzen ditu... Ez dago horrelako espazioak arautzeko erregelamendurik. Laudion berrogeita hamar etxabe inguru daude eta oso gutxik eragiten dituzte arazoak.